

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure proposamena arrakastasua izan dadin, bezeroarekiko harremana funtsezko alderdi bat da. Behin bezeroak lortu ditugunean gure proposamenari lotuta mantendu beharko ditugu.

Hori dela eta, batetik, astero zaharretxe desberdinetara bisitak egingo ditugu, beraiekin denbora pasatu eta gehiago ezagutu ahal izateko. Horrela, zuzendariak guregan konfiantza hartzeko aukera izango dugu.

Bestetik, gure langileei esker, bezeroek beraien eskaerak egin ahal izan ditzaten denda fisiko batera joan behar izan gabe, eta gainera hauen zalantzak argitzeko, zerbitzu pertsonalizatua izango dute. Ordutegia, edozein enpresen antzerakoa izango da, hortaz, bezeroek tartexo bat libre dutenean deituz gero, guk ere izango dugu tartetxo bat beraientzat.

Honen harira, gure webgunean, bezeroei zelan dijoakien argitaratzen joango gara. Beraz, jendeak kuriositatea izanez gero, informazio guztia bertan aurkituko du. Esate baterako; argazkiak argitaratuko ditugu, zaharretxeetako zuzendari eta langileen iritziak, baita gureak ere, helduen jarrera, hobekuntzak, etab.